



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

Urteko Txostena 2008

D/42/2008 Eskaera

EBAZPENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO DEFENDATZAILEARENA; HORREN BIDEZ, ADIERAZTEN DA EL DIARIO VASCO EGUNKARIAK SEXU ARRAZOIENGATIKO DISKRIMINAZIOA EGITEN DUELA EGUNEROKO PRENTSAKO HARREMANETARAKO IRAGARKIETAN.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzaileak, 4/2005 Legearen (martxoaren 2ko EHAA) 72. artikulua eta 119/2006 Dekretuaren 18. artikulua ematen dizkieten ahalmenen indarrez, honako ebazpen hau eman du, ondoren adierazten diren aurrekarietan oinarrituz:

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2008ko maiatzaren 23an, Diario Vascon egunero argitaratzen diren relax-ataleko iragarkiei dagokienez sexu-arrazoiengatiko ustezko diskriminazioa ikertzeko prozedura ofizios irekitzea erabaki zen. Ondoren, 2008ko ekainaren 3an, ikerketarako interesgarriak ziren hainbat alderdiri buruzko informazioa eskatu zen:

1. Diru-sarrerak: oro har sailkatutako iragarkiengatik jasotako diru-sarreraren xehetasuna, baita bereziki relax-ataleko iragarkiengatik jasotako diru-sarrerena ere.

2. Tiradaren eta aurrekontuaren kontrola: saldutako aleen kopurua eta aldizkariaren aurrekontua, adierazi diren aldietan (2007-2008).

3. Relax-ataleko iragarkien tarifak.

4. Iragarleen identifikazioa: - Iragarkientzat oro har eta relaxeko sailkatuentzat partikulariki kontratuak baldin badaude, kontratu-eredu bakoitzaren kopia bat bidaltzea.

- Kontratazioaz zuzenean aldizkaria ardatzen bada, adierazi arduradunen lokalizazioa-zentralizazioa.

- Relax-ataleko iragarkien kontratazioaz arduratzen dena ez bada aldizkaria zuzenean, identifikatu behar da horretaz arduratzen den enpresa, halakorik balego, eta adieraz ezazu eta aurkez ezazu aldizkaria balizko enpresa komertzialarekin lotzen duen kontratua.

- Iragarleen kontratuen sailkapena baldin badago, pertsona fisikoa eta/edo juridikoa direlako (partikularra/enpresa/klubak), adieraz ezazu eta aurkez itzazu kontratu-ereduak.

- Xehatu ezazu relax-ataleko iragarkien azken bi urteotako bolumen eta balio ekonomikoa, iragarlearen izaera juridikoaren arabera banatuta.

- Relax eta sexuari lotutako iragarki sailkatuei dagokienez 2007. eta 2008. urteetan oro har enpresekin, klubekin eta pertsona juridikoekin egindako kontratuak aurkez itzazu.

5. Relax-sexuko sailkatuen abiapuntua.

- Relax-atala inauguratu zen data.

- Relax-ataleko iragarkien kopurua nabarmen handitu zen data.

- Relax-atalean lehen aldiz irudiak sartu ziren data.

Bigarrena.- 2008ko uztailaren 3an, El Diario Vascon Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak 2008ko ekainaren 3an eskatutako dokumentazioa aurkeztu zuen. Baina ez zuen aurkeztu kontratuei buruzko dokumentaziorik ezta publizitate hori kontratatzen zuten partikularrei buruzko daturik ere.

Hirugarrena.- Berdintasunerako defendatzailearen 2008ko azaroaren 10eko Ebazpenaren bitartez, 119/2006 Dekretuak arauz ezarritako epea 3 hilabetez luzatzea erabaki zen D/45/2008 espedientea ebazteko, ikerketaren konplexutasunean oinarrituz, hiru ikuspuntutik egin baita (ekonomikoa, juridikoa eta gizarte-inpaktuari buruzkoa).

Laugarrena.- 2008ko abenduaren 16an, eta 119/2006 Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoaren indarrez, Noticias de Gipuzkoaren entzute-tramiteari hasiera eman zitzaion, egindako ikerketa-eginbideetarako sarbidea izateko eta, komenigarritzat jotzen badu, espedientearen ebazpenean kontuan izan beharreko alegazioak, dokumentuak edo



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

bestelako elementuak aurkezteko, baina ez da alegaziorik aurkeztu.

Zuzenbideko Oinarriak

Lehenengoa.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako funtsezko eskubideari dagokionez.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan onartzen den printzipio juridiko unibertsala da. Testu horien artean, emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak desagerrarazteari buruzko Konbentzioa (CEDAW) dago. Konbentzio hori Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu zuen 1979. urteko abenduan eta Espainiak berretsi 1983. urtean.

Berdintasuna, halaber, Europar Batasuneko funtsezko printzipioa da. Amsterdameko Ituna indarrean jarri zenetik, hots, 1999ko maiatzaren 1etik aurrera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazte Batasuneko eta horren kide direnen politika eta ekintza guztietan bildu behar diren helburuak dira.

1978. urteko Espainiako Konstituzioak 14. artikulua berdintasun-printzipioari eskaintzen dio, eta honako hau ezartzen du: *“Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta”*.

Emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak (aurrerantzean 3/2007 Lege Organikoa), honako hau adierazten du 1. artikuluan: *“Emakumeak eta gizonak berdinak dira giza duintasunean eta berdinak eskubideetan eta betebeharretan. Lege honen helburua da emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunerako eskubidea gauzatzea, bereziki emakumearen diskriminazioa ezabatuz, haren zirkunstantzia edo izaera edozein izanik ere, bizitzako edozein eremutan, eta bereziki alor politikoan,*

zibilean, lanean, ekonomian, eta gizarte- eta kultura-arloan, Konstituzioaren 9.2 eta 14. artikuluen garapenean gizarte demokratikoagoa, zuzenagoa eta solidarioagoa lortzeko”.

Era berean, 3/2007 Lege Organikoaren 4. artikulua adierazten du emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna ordenamendu juridikoaren printzipio informatzailea dela, eta, horregatik, arau juridikoak interpretatu eta aplikatzerakoan kontuan hartuko dela”.

Bestalde, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (aurrerantzean, 4/2005 Legea) mekanismo eta neurri zehatz batzuk planteatzen ditu, euskal herri-administrazioek eragin handiagoko politikak eta jardunak abiarazi ditzaten lortzeko, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren fenomenoaren –egiturazkoa eta unibertsala– gizaretik desagerrarazteari begira. Mekanismo horien artean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortu du, sexu-arrazoiengatiko diskriminazio-egoeren aurrean herritarrak defendatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioaren betetzea sustatzeko organo gisa (63.1 artikulua). Defentsa Erakundearen zereginetako bat ikerketak egitea da, sexua dela-eta gerta daitezkeen diskriminazio egoerak – zuzenekoak edo zeharkakoak– argitzeko (64.1, a) artikulua).

Kasu honetan, Berdintasunerako Defentsa Erakundearen eskumena da argitzea ea Noticias de Gipuzkoak sexu-arrazoiengatiko diskriminazioa egiten duen, eguneroko prentsako edizioan emakumezkoen prostituzio-zerbitzuak argitaratzen baititu prezio bidez eta relax terminoaren barnean. Horretarako, 2008ko abenduan jarritako publizitatea aztertu da.

Bigarrena.- Sexu-zerbitzuen publizitateari dagokionez.

El Diario Vascok, prezio bitartez eta relax terminoarekin, emakumezkoen prostituzio



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

zerbitzuen publizitatea egiten du prezio baten truke, besteak beste honako datu hauek emanaz: bezeroak lor ditzakeen sexuprestazioen ezaugarriak; prostituten adina edo adinaren balioidea (gazteak / helduak – jovencitas / maduritas); prostituten deskribapen fisikoa; nazionalitatea; larruazalaren kolorea edo arraza-jatorria; prezioa eta/edo onartzen diren ordainketa motak; telefono-zenbakia; eta argazkia hainbat kasutan. Iragarki horietan erakusten eta eskaintzen den produktua emakumeen gorputza da, zeina gauzatzat hartzen den eta publizitatea beren ezaugarri fisikoen arabera egiten den, batez ere beren ipurdiaren eta bularren tamaina aipatuta.

ARANTZA,
con unos pechos rebosantes, curvas mar-
reantes, unas nalgas con unos movimien-
tos acentuados y femeninos, unos mus-
los generosos y apetitosos. Visa. También
salidas hotel y domicilio. 24 horas.
www. com San Sebas-
tián eróticos

ARGENTINA PALOMA
alta, delgada, 140 de impresionantes pe-
chos. Larga melena. Masajes.

ARGENTINA PAOLA
23 años, modelito, supersexy. Todos los
servicios.

ASUN masajes pies manos, testicular. Fran-
cés, 50 €.

ATENCION 19 añitos, explosiva, sensual, sexy.
Griego, copa. Discreción, 500 €.

El Diario Vascok, hirugarren alegazioan, adierazten du harremanetarako iragarkien argitalpena lege-jarduera bat dela eta ez duela lege bakar batek debekatzen (3/2007 Lege Organikoa eta 4/2005 Legea barne) eta esparru horretan egin den gauza bakarra izan da komunikabideei gomendatzea sexu-merkataritzarekin erlazionatutako iragarkiak ken ditzaten.

Adierazi behar da Espainian ez dagoela araudi espezifiko bat sexu-merkataritzaren publizitateari buruz. Hala eta guztiz ere, Kongresuko eta Senatuko Emakumearen Eskubideei eta Aukera-berdintasunari buruzko Batzorde Mistoak sexu-harremanen iragarkien argitalpena aztertu du Espainiako

prostituzioari buruzko "Informe de la ponencia sobre la prostitución en nuestro país" izeneko txostenean; txosten hori 2007ko martxoaren 13an onartu zen, eta bertan adierazten da prentsak prostituzioaren publizitateetik diru-sarrerak jasotzen dituela, jarduera hori berez ez baitago penalizatuta, bai ordea horretara bultzatzen duten jokabideak. Eta prostituzioarekiko zero tolerantzia proposatzen du, uste baitu kasurik gehienetan ez dela norberaren borondatez egiten, baizik eta pobrezia eta/edo bazterkeria egoeran dauden emakumeen eta nesken esplotazioarekin zuzenean erlazionatuta dagoela. Ildo horretan, komunikabideei eskatzen zaie beren kode deontologikoen barruan xesu-merkataritzarekin erlazionatutako publizitateari uko egin diezaiotela, xesu-merkataritzara dedikatzen diren mafia-erakundeen negozioia eragozteko.

Iragarki horiek ezabatzearen alde hainbat herritar-elkarte agertu dira, adibidez Andaluziako emakume kazetarien biltzarra eta emakume progresisten federazioa (Asamblea andaluza de mujeres periodistas-AAMP, Federación de Mujeres Progresistas). Era berean, Espainiako Prentsa Elkartearen Federazioak (Federación de Asociaciones de la Prensa Española - FAPE), estatu espainiarrean dauden hainbat elkarte biltzen dituen, gobernuak aldizkariari egin zien eskaerarekin ados agertzea onartu zuen batzar orokor batean.

Estatu espainiarreko prentsa idatziko aldizkari batek bakarrik, 20 minutos deitutako doako aldizkariak, erantzun du publikoki, eta sexu-harremanei buruzko iragarkiei uko egin die, baita Público aldizkari berriak ere. Gure autonomia erkidegoan, Gara eta Berria egunkariak lehendik egin zuten hori. Nazioartean, 2003an, The International Herald Tribune egunkariak (egoitza Parisen du eta egunero 185 herrialdetan banatzen da) iragarri zuen ez zuela prostituzio-iragarkirik argitaratuko, egunkaria editatzen duen enpresaren "estandar eta balioekin ez datorrelako bat". Ildo horretan, bere harridura azaldu zuen Pearson Taldearen (The Financial Times eta The Economist editatzen ditu) zuzendaritza-taldeko kide eta Recoletos Taldearen kontseilari den emakume batek,



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

Europa osoan Espainian bakarrik argitaratzen dituelako prostituzio iragarkiak kalitateko prentsak, diru kopuru handiak lortzearen truke.

Sexu-zerbitzuak komunikabideen bitartez salerostea fenomeno berria da gure inguruan. 90ko hamarkadaren erdialdean, orotoratiko egunkariak iragarki horiek argitaratzen hasi ziren, sailkatutako iragarkiei buruzko orrialdeetan epigrafe desberdinak erabiliz. Lehendik erakutsi den irudia bezalakoak urte batzuk igaro ondoren hasi dira sartzen. Fenomeno hori idatzizko prentsaren zati handi batera hedatu da, eta beraz, sexu-merkataritzak gaur egun garrantzi handia du egunkariak publizitatearekin lortutako diru-sarreretan, eztabaida etiko bat sortuz, iragarki horiek legez kontrako publizitatez hartu behar diren edo har daitezkeen eztabaidatuz. 2007. urtean, El Diario Vasco sailkatutako iragarkiengatik jasotako urteko zenbatekoa 4.117.180€ izan zen, eta horietatik 1.023.788€ harremanetarako iragarkiak argitaratzearen ondoriozko diru-sarrerak ziren (%24,9). 2008ko urtarrilaren eta ekainaren artean, sailkatutako iragarkiengatik jasotako zenbatekoa 1.787.000€ izan zen, eta horietatik 432.576€ relax atalean iragarkiak argitaratzeagatik lortu ziren (%24,2). Egunkari horrek adierazi du harremanetarako atala 1983an hasi zuela, eta 1999ko maiatzetik aurrera atal horretan argazkiak argitaratzen direla.

Dena dela, gure ordenamendu juridikoak harremanetarako iragarkien argitalpena espresuki debekatutako jarduera bat ez den arren, horrek ez du esan nahi iragarki horiek gaur egun argitaratzeko erak edo moduak indarrean dagoen araudia hautsi ez dezakeenik. Ildo horretan, Konstituzio Espainolaren 10. artikulua (*"Oinarrizko eskubide eta eginbeharrei"* buruzko 1. Tituluan) honako hau adierazten du: *"Ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datzekion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta gainerakoen eskubideei zor zaien begirunea"*.

Justizia-epaitegiek eskubide hori bortxatutzat jo dute, ez prostituzio-iragarkiei lotuta baizik

eta prostituzioari berari lotuta, Lan Arloko 2. zk.-ko Epaitegiaren 2004ko maiatzaren 7 Epaian (AS \ 2004\ 1276) honako hau adierazten baitzuen: *"prostituzioa despenalizatuta dagoen arren, epaitegiek behin eta berriz adierazten dute prostituzioa genero-indarkeriaren adierazpen eta proiektio zehatza dela, emakumearen nortasuna duintasunez garatzeko aukera hasieratik ito egiten duelako, pertsonaren askatasunari eta duintasunari eraso egiten diolako, zeina bereziki babestuta dagoen Konstituzio Espainolaren 1. eta 10. artikuluetan"*.

Era berean, Konstituzio Espainolaren 15. artikulua inolako tratu iraingarririk ez jasotzeko eskubidea biltzen du, honako hau adierazten baitu: *"guztiak bizitza eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea dute, eta ezin da inoiz torturarik egin, ez eta zigor edo tratu jasanezin edo apalesgarrikeri ere"*.

Eskubide horien babesak adierazpen-askatasunarekiko muga bat dakar, Konstituzio Espainolaren 20.4 artikuluan bilduta dagoena, zeinaren indarrez: *"askatasun horien guztien mugak dira titulu honetan zein eskubide aitortu eta eskubideei zor zaien begirunea, horiek garatzeko emandako lege-manuak eta, batez ere, ohorerako, bizitza pribaturako eta norberaren irudirako eskubideak, bai eta gazteak eta haurrak babesteko eskubidea ere"*.

Batzorde Mistoak 2007ko martxoaren 13an egindako bilkuran onartutako *"Ponencia sobre la prostitución en nuestro país (15/9)"* izeneko txostenean eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak landutako *"Euskal Autonomia Erkidegoko prostituzioari buruzko gogoeta estrategikoan"* (2007ko abendua) bildutako gomendioak, gizarte komunikabideei egindako gomendiotzat aurkezten dira, beren kode deontologikoen esparruan sexu-merkataritzarekin erlazionatutako publizitateari uko egiteko aukera azter dezaten.

Lehendik adierazitako terminotan harremanetarako iragarki kopuru handia egunero hedatzen duenez, argi uzten du Noticias de Gipuzkoak ez dituela gomendio horiek orain arte kontuan hartu, ez diolako



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

uko egin mota horretako iragarkiak argitaratzeari.

Hirugarrena.- Komunikabideek desberdintasuna eta mendekotasuna iraunarazten duten genero-rolen eta – estereotipoen transmisioan duten zereginari lotuta.

El Diario Vascok, lehen alegazioan, honako hau adierazten du: *“ez da prozeduran zehar inoiz egiaztatuta geratu El Diario Vascok tratu desberdina egiten duenik gizonen eta emakumeen artean beren sexua dela-eta, eta hori gertatzen da egunkari honek gizonen eta emakumeen ematen dien trataera berdina delako eta beti berdina izango delako”*.

Komunikabideetako genero-analisiari buruzko azterlanek estatistikoki argi uzten dute gizonak gehiago agertzen direla informazio-espazioetan: egunkarrietan gehien agertzen eta errepikatzen diren irudietan bikoteak edo gizon-taldeak agertzen dira, barrez edo bostekoa emanez akordioak edo itunak egin ondoren politikaren, negozioen edo kirolaren alorrean; emakumeek, emaitzarik onenetan, izen propioarekin egiten diren aipamenean %18 lortzen dute; eta emakumeen errepresentazio handiegia dago (% 12, eta gizonen %2,5) delituen, istripuen edo katastrofeen biktima gisa. Noticias de Gipuzkoaren edizioetan ez da aldaketarik aurkitu aipatu den gai horri dagokionez. Zuzendaritza-taldean emakumeen ordezkaritza eza (13 gizon eta 3 emakume) zuzenean lotuta egon daiteke emaitza horiekin. Era berean, komunikabide horrek egunero publizitatzen dituen sexu-harremenei buruzko iragarki gehienak emakumeenak dira, eta horien eskubideengan zuzeneko eragina dute, batez ere prostituzio-zerbitzu horien publizitatea egiteko modua kontuan izanik: irudi eta deskribapen negatiboak eta iraingarriak.

Harremanetarako iragarkiek emakumeak desberdinak baina osagarriak diren bi roli lotuta aurkezten ditu, biak haien duintasunaren aurkakoak; bat mendekotasuneko, bere lehentasun bakarra



MUCHO más que jugar. Es sudar. Es calor. Es vibrar.

Chicas fáciles con iniciativa. Buscan hombres de verdad.

Las más exclusivas, estamos aquí para redondear tu día.

hotel, domicilio, 24 horas. Visa, American Express.

edozein unetan gizonentzat eta haien gogobetetasunarentzat eskuragarri egotea (*“sumisa esclava” “frances con nata y todo lo que quieras”, “me muevo como una pantera y rrrroneo como una dulce gatita”*), eta beste bat laidogarria eta umiliagarria, emakume horiek eskaintzen duten sexua eta plazerra hainbat adjektibo umiliagarri lotuta agertzen baita: *“golfas”, “viciosas”, “guarras”, “chica fácil”, “calientes”* eta abar.

CEDAW konbentzioak diskriminaziotzat jotzen du *“sexuan oinarritutako bereizkeria, bazterkeria edo murrizketa oro (...) politika, ekonomia, gizartea eta politikaren arloan eta arlo zibilean edo beste edozein arlotan”*. Nazio Batuen Konbentzio horren zereginetako bat da giza eskubideen kontzeptuaren interpretazioa zabaltzea, emakumeek beren funtsezko eskubideak erabiltzearen murrizketan kulturak eta tradizioak bete duten papera formalki onartzearen bitartez. Kultura eta tradizioa hainbat estereotipo, ohitura eta arautan adierazten dira, eta horiek emakumeen berdintasunerako bidean dauden muga juridiko, politiko eta ekonomiko asko sortzen dituzte. Erlazio hori onartzu, CEDAWren hitzaurrean honako hau adierazten da: *“gizonaren eta emakumearen arteko erabateko berdintasuna lortzeko beharrezkoa da gizonak nahiz emakumeak*



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

gizartean eta familian betetzen duten paper tradizionala aldatzea". Ondorioz, parte hartzen duten Estatuak gizonen eta emakumeen jarrerako eredu soziokulturalak aldatzen lagundu behar dute "sexuetako baten gehiagotasunaren edo gutxiagotasunaren ideian edo gizonen eta emakumeen funtzio estereotipuetan oinarrituta dauden aurreiritziak eta ohiturazko eta beste edozein motatako praktikak ezabatzeko" (5. artikulua).

Nazio Batuek 1985ean Nairobin egin zuten emakumeen aurrerapenerako Konferentziak, beste hainbat estrategiaren artean definitzen du komunikabideek funtsezko zeregina dutela emakumeen estatusak aurrera egin dezan, eta komunikabide desberdinetan emakumeen irudikapen estereotipatu eta esplotatzaileak ezabatzeko deia egiten du, publizitate-iragarkiak barnean hartuz. 1990. urtean, Nairobiko Estrategien Lehen Txostenean eta ebaluazioan onartu zen komunikabideetan irudi estereotipatuak iraunarazteak, bereziki gizonetzkoen eta emakumezkoen rol tradizionalen goraiapamenak, emakumeen berdintasunerako aurrerapena atzeratzen zuela, statu quo desberdinerako justifikazioa ematen zuelako. 1995. urtean, Nairobiko Estrategien Bigarren Txostenean eta ebaluazioan adierazten da, besteak beste, komunikabideak gutxi erabiltzen direla emakumeek gizarteari egiten dizkieten ekarpen positiboak bultzatzeko. Eta adierazten duenez, komunikabideek eraikitako emakumeen irudiak ez badira ateratzen patriarkatuak historian zehar esleitu dien zeregin estu eta mugatuetatik -ama, emazte eta sexu-objektu gisa-, ezinezkoa da gizarteak bere kultura-esanahiak aldatzea eta menpekoak izatea ez den beste estatus bat lortzea emakumeek. Dokumentu horrek garai hartan dagoeneko hedabideak aipatzen zituen 1995ean Beijing-en egin zen IV. Konferentzian onartutako Ekintza Planaren hamabi area estrategikoen artean.

1995eko Beijineg-eko Ekintza Planak honako hau adierazi zuen: "nabarmena da informazio-bideetan generoaren auziari arretarik ez zaiola eskaintzen, generoan oinarritutako estereotipoekin jarraitzen dutelako (...) ez dute eskaintzen emakumeen bizi-estilo

desberdinen eta bilakatze-prozesuan dagoen mundu honetan gizarteari egiten dioten ekarpenaren irudi orekatua". Eta adierazten du hartu beharreko neurrietako bat dela "hedabideetan aurkezten diren estereotipo sexistak emakumearentzat diskriminatzaileak, iraingarriak eta mingarriak direla bultzatzea".

Gai horretan sakonduz, 1995ean Beijing-en Emakumeek aurrerapauso bat emateko Nazio Batuen IV. Mundu mailako Konferentzian parte hartu zuten 185 estatuak adostutako Ekintza Plataformak, adierazten du bultzatu behar dela emakumeen ordezkariak orekatua eta estereotipatu gabea. Helburu estrategikoen artean ezartzen du komunikabideen jarduna, eta adosten du "komunikabideetan emakumearen irudi negatibo eta iraingarrien etengabeko proiektzioa ezabatu egin behar dela", hartu beharreko neurrien artean honako hau adieraziz: "hedabideei eskatzea emakumea ez dezatela aurkeztu maila txikiagoko izaki gisa eta ez dezatela esplotatu sexu-objektu eta kontsumo-ondasun gisa, baizik eta aurkez dezatela gizaki sortzaile gisa, garapen-prozesuaren eragile nagusi, bultzatzaile eta onuradun gisa".

Era berean, Europar Batasunak kausa-efektu erlazio bat ezarri du komunikabideetan emakumeen sarbide eta sustapenaren eta komunikabideetako produktuetan emakumeen irudi zabalagoa eta ez hain estereotipatuaren artean.

Europar Batasuneko Kontseiluaren eta Estatu kideetako Gobernuen Ordezkarien 1995eko urriaren 5eko Ebazpenak, publizitatean eta komunikabideetan egiten den emakumeen eta gizonen irudiaren tratamenduari buruzkoak, adierazten du publizitatean eta komunikabideetan sexuari lotutako estereotipoak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunari lotutako jarreretan eragina duten desberdintasunen faktoreetako bat direla, eta "publizitateak eta komunikabideek ekarpen handia egin dezakete gizartean jarrerak alda daitezen, emakumeen eta gizonen funtzioen eta gaitasunen aniztasuna islatuz, gizarte-bizitzaren alderdi guztietan parte hartuz, eta familiako, laneko eta gizarteko erantzukizunak emakumeen eta



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

gizonen artean modu orekatuagoan banatuz” eta “komunikabideek eta publizitate-bideek ezin diote erasorik egin giza duintasunaren errespetuari, eta ezin dute barnean hartu sexu-arrazoiengatik elementu diskriminatzaileak”.

“Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko estrategia marko komunitario baterantz” deitutako V. Ekintza Programa europarrak (2001-2005), honako hau adierazten du: “Emakumearen irudi negatiboa edo estereotipua irunarazterakoan, bereziki komunikabideetan eta informazio- eta entretenimendu-kanal informatizatuetan, publizitatean eta hezkuntza-materialean, ez da eskaintzen ari emakumeen eta gizonen rol desberdinen irudi zehatza ezta errealista ere, ezta aldatzen ari den mundu honi egiten dizkieten ekarpenena ere” eta horregatik honako hau adierazten du: “beren adierazpen-askatasunaren kaltetan izan gabe, eta iritzi-sortzaile eta balioak modelatzeko tresna diren heinean, komunikabideek eta kulturaren industriak jendearen pertzepzioan estereotipo sexistak aldatzen eta gizonen eta emakumeen irudi objektiboa aurkezten lagundu behar dute”.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako lan-planak (2006-2010) estereotipo sexistak ezabatu nahi ditu hezkuntzan, prestakuntza eta kulturaren, lan-merkatuan eta komunikabideetan.


Aukera-berdintasunerako Plan Estrategikoak (2008-2011) adierazten du emakumeen irudi soziala sozializazio-prozesuan bere nortasunaren eraikuntzari zuzenean lotuta dagoela, eta prozesu horrek diferentzia handiak ezartzen ditu emakumeen eta gizonen artean. Hezkuntza ez-formalak funtsezko zeregina jokatzen du kultura sexistaren garapenean. Gizarte-antolaketa eta bere irudikapenek oraindik ere eredu androzentrikoari erantzuten diote, non sexu bakoitzari funtzio desberdinak esleitzeak gizarte-errealitatea zatitzeaz gain, hura hierarkizatu egiten duen, balio txikiagoa emanez femeninoari, maskulinoarekin konparatuz gero.

Ildo horretan doa 3/2007 Lege Organikoa, eta erkidegoko legeriaren esparruan 4/2005 Legea, zeinak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduna arautu eta orientatu behar duten printzipio nagusien artean honako hau adierazten duen: “emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren oinarri diren sexuaren arabera rol eta estereotipoak ezabatzea”.

Laugarrena.- Haurren eta gazteen eskubideen babesari dagokionez.

El Diario Vasco Gipuzkoan gehien saltzen den egunkaria da, eta bertan politikari, ekonomiari, estatuari eta nazioarteari buruzko berriak biltzen dira. Aldizkari “serioa” da eta horregatik adinekoei eta adingabeei saltzen zaie, etxe, ikastetxe, liburutegi eta unibertsitate guztietan sartzen da, eta herritar orok eskura du.

Sexu-harremanen publizitate-jardueraren bitartez, Noticias de Gipuzkoak prostituzioaren ohiko eta eguneroko hutsaltzea aurkezten du, eragin hirukoitzarekin: batetik, pertsonen sexuaren arabera estereotipoen transmisioa, adierazi den bezala; adingabeak (adibidea: 14 eta 17 urte bitarteko neska) prostituziora bideratzea



ACACIA mulatita brasileña, 38 años, culito redondo. **Leyre**, morenita 26 años, cariñosa, viciosa. Francés natural completo, lluvia, consoladores, fetichismo, griego, dominación múltiples besos y penetraciones, fiestas privadas. ¡¡¡Nos gusta el sexo juquetón y el vicio desenfundado!!! **Acacia** **Leyre**



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

edo, gutxienez, kontuan hartzea balizko aukera bat bezala, bestetik; eta gizartean prostituzioa onartzeko eta orokortzeko iritzi-egoera normalizatzea, ez soilik helduen prostituzioa baizik eta 18tik 21 urtera bitartekoena ere, bitartekarien interes ekonomikoen eta bezeroaren/prostituitzailearen satisfaziorako.

Era berean adierazi behar da iragarki horiek gazteen sexu-heziketan duten eragin negatiboa, iragarki horiek menderatzeko eta mendeen jartzeko erlazioak bultzatzen eta sustatzen dituztelako menderatzeko/mendeen jartzeko harremanak eta babesik gabeko harremanak, "era naturalean" egindakoak, prestazio osagarri eta erakarpen gisa balizko kontsumitzaileentzat, sexu-transmisioko gaixotasunak eta nahi ez diren haurdunaldiak handitzeko arriskua ekarriz, osasun publikoaren eremuan zuzeneko eragina izanik, eta Europako nahiz Estatuko prebentzio-politikei jaramonik egin gabe.

Adingabeen babesa indartuta geratzen da adingabea juridikoki babesteko eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzen dituen urtarrilaren 15eko 1/1996 lege Organikoaren bidez, zeinak 5. artikuluko 1.idatz-zatian honako hau adierazten duen: "1. Adingabeek eskubidea dute beren garapenerako egokia den informazioa bilatu, jaso eta erabiltzeko. 2. Guraso edo tutoreek eta botere publikoek zainduko dute adingabeek jasotzen duten informazioa egiatzkoa eta anitza dela eta konstituzioko printzipioak errespetatzen dituela". Ildo horretan, administrazio publikoek zainduko dute komunikabideek, adingabeei zuzendutako mezuetan, berdintasuna, elkartasuna eta besteekiko errespetua sustatzen dutela, indarkeriako irudiak eta pertsonen arteko harremanetan esplotazioa edota tratu iraingarria edo sexista islatzea saihesten dutela.

Eskubide horietako bakoitzaren babesak adierazpen-askatasunarekiko muga bat dakar, =Konstituzio Espainolaren 20.4 artikuluan bilduta dagoena, zeinaren indarrez: "askatasun horien guztien mugak dira titulu honetan zein eskubide aitortu eta eskubideori zor zaien begirunea, horiek garatzeko

emandako lege-manuak eta, batez ere, ohorerako, bizitza pribaturako eta norberaren irudirako eskubideak, bai eta gazteak eta haurrak babesteko eskubidea ere".

Bosgarrena.- Publizitatean emakumeak sexu-objektu gisa aurkezteari dagokionez.

El Diario Vascoren "Tusanuncios" atalak, formatu aldaketa txikiekin, hainbat epigraferen arabera antolatutako publizitatea aurkezten du, esate baterako: motor-ventas, maquinaria, inmobiliarias, ofertas, compras, ventas animales, financiera, Contactos, relax, argazkiak barne, batez ere autoen argazkiak "motorarren" epigrafean eta emakumeen argazkiak "relax" epigrafean.

Horrela, salerosketaren ideiak garrantzia lortzen du, sekzio horretako argazkiei eta izenburuei lotuta, "relax" epigrafeko iragarkiak kontsumitzaileen eskura dagoen bazar handi bat bezala aurkeztuz, non emakumeak salmenta-objektu gisa agertzen diren.

El Diario Vascon egiten duen prostituzioaren salerosketako eta hutsaltze-normalizazioko testuinguru hori argi ikus daiteke, adibide gisa, urriaren 13ko (69. orria) eta urriaren 14ko (57. orria) iragarkietan, non bi txakurtxo maitagarriren iragarkiak agertzen ziren, txakur horien adopzioa eskatuz.

Bi egunetan, orrialde berean, relax-iragarkiak agertzen dira argazki eta guzti, eta horien idazkuntzan ez dago diferentzia handirik txakurren iragarkiekin, batzuetan "objektua" txakur bat dela eta bestean "gaztetxoak" direla salbu. 57. orrian honako hau dio: "joven perro negro y blanco", "alegre y juguetón", "simpática", eta 58. orrian, berriz, honako hau: "jovencita cachonda-cariñosa-culitospingón-coñito juguetón".

El Diario Vascon argitaratutako harremanetarako iragarkiak, hirugarren zuzenbideko oinarrian adierazi den bezala, mendeen jartzen den eta atsegin ematen duen emakumearen rol estereotipatua sustatzen eta bultzatzen duten iragarkiak dira, eta era berean emakumeen sexualitatea adjektibo gutxiesgarriekin lotuta agertzen da, adibidez golfa, viciosa edo guarra adjektiboak.



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres



ADELA. Jovencita cachonda. 120 pecho. Multiorgásmica. Cariñosa. Francés natural. Griego. Beso negro. Lluvia besucona. Copa. Video. Pruébame. Salidas Guipúzcoa.

ANNY Jovencita cariñosa, morbosa. 95 pecho. Dulce respingón. Francés natural. Ducha erótica. Consoladores. Masajes. Video. Copa. Atrevete. Salidas. Guipúzcoa.

Publizitateak hutsaltzen eta zabaltzen dituen estereotipo horiek emakumeen aurkako indarkeria fisiko eta/edo psikikoko portaerak ekar ditzakete, menderapeneko gizarte-eredu tradizional baten esparruan beren borondatepean jarri nahi dituzten gizonen eskutik.

Ildo horretan, azaroaren 11ko Publizitateari buruzko 34/1988 Lege Orokorren ikuspuntutik, argitaratzen diren prostituzio-iragarkiak legez kontrako publizitatearentzat estipulatuta dagoenean erortzen dira. Lege horren 3 a) artikulua legez kontratatzat jotzen du "personaren duintasunari eraso egiten dion edo Konstituzioan onartutako balioak eta eskubideak, bereziki 18. artikulua eta 20. artikuluko laugarren idatz-zatiak aipatzen dituenak, urratzen dituen publizitatea", izan ere, "iragarki horiek emakumea modu laidogarrian aurkezten baitute, haien gorputza edo gorputzaren atalak partikulari eta zuzenean erabiliz sustatu nahi den produktuaz aske dagoen objektu soil bezala, edota emakumearen irudia gure ordenamenduaren oinarriak urratzen dituzten portaera estereotipatuak lotuta aurkezten duelako, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko lege organikoak aipatzen duen indarkeria sortzen lagunduz".

Aztertutako bi publizitate-iragarkiek, era berean, 4/2005 Legeak gizarte-komunikabideei eta publizitateari buruzko 26. artikuluan ezarritako bi debekuak urratzen dituzte: "1. Hedabideetako batek ere ezin izango du adierazi, bere jarduna Euskal

Autonomia Erkidegoaren baitakoa baldin bada, pertsonak, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela, ez eta objektu sexual soilak direla ere. Orobat, ezingo zaie zabalkundea eman emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duten edukiei. 2. Debeku da pertsonak, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen publizitate-iragarki oro egin, eman edo erakustea, eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen oro ere".

Batetik, emakumeak aurkezten diren modua kontuan izanik, horiek objektu sexual soil bihurtzen dira. Iragarki horietan erakusten eta eskaintzen den produktua emakumeen gorputza da, zeina gauzatzen hartzen den eta publizitatea beren ezaugarri fisikoen arabera egiten den, batez ere beren sexu ezaugarriak aipatuta. Publizitate horrekin eskaintzen zaio balizko kontsumitzaileari nahi dituen sexu-harremanak izateko aukera, modu horretan emakumea sexu-objektu soil bihurtuz.

Bestalde, emakumearen aurkako hutsaltzea eta indarkeriarako bultzatzea gauzatuz, indarkeria terminoa zentzu zabalean ulertuz, izan ere, aipatu 4/2005 Legearen 50. artikulua arabera, "sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badiu edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan".

Izan ere, iragarkiak irakurtzerakoan ikus daiteke "emakumeak modu laidogarrian" aurkezten dituztela, "beren irudia gure ordenamenduaren oinarriak urratzen dituzten portaera estereotipatuak lotuta aurkezten duelako", eta Legeak esaten duen bezala, "genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak aipatzen duen indarkeria sortzen" lagunduz.



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

Azkenik, berdintasunari eta publizitateari dagokionez, 3/2007 Lege Organikoaren 41. artikulua honako hau dio: *“Lege honen arabera jokabide diskriminatzailea dakarren publizitatea legez kanpoko publizitatez joko da, publizitateari eta publizitate eta komunikazio instituzionalari buruzko legerian aurreikusitakoaren arabera”*.

Seigarrena.- El Diario Vascoren erantzukizunaren nondik norakoari dagokionez.

Aurkeztutako laugarren alegazioan, El Diario Vascok honako hau adierazten du: *“harremanetarako iragarki sailkatuak argitaratzeko aldizkariak egiten duen hautespen-prozedura beste edozein publizitate espazioren prozeduraren berdina da, eta aldizkariaren zuzendaritzak ez du esku hartzen iragarki horien edukiaren idazkuntzan edo manipulazioan (testua eta/edo argazkia)”*. Eta jarraitu du honako hau alegatuz: *“partikularrak dira, beren askatasun indibiduala erabiliz, publizitate-espazioak kontratatzen dituztenak zerbitzu jakin batzuk eskaintzeko, eta egunkariak bere horretan argitaratzen ditu”*.

Gogoratu behar da, puntu honetan, Defentsa Erakundeak partikular kontratatzaileei buruzko informazioa eskatu ziola El Diario Vascore, eta aldizkariak ez zuela eman informazio hori. Hala eta guztiz ere, Diario Vascok Defentsa Erakundeari bidalitako 2008. urterako kontratazio-baldintzen 8.klausulan, honako hau adierazten du: *“El Diario Vascok komenigarritzat jotzen ez dituen edo indarrean dagoen araudia urratu dezaketen iragarkiak argitaratzeko eskubidea bere gain gordetzen du (...)”*.

Ildo horretan, 4/2005 Legearen 26.3 artikulua honako hau adierazten du: *“Gizarte-komunikabideek, beren programazioak egiteko orduan, ez dute hizkera sexistarik erabili behar, eta emakumeen parte-hartze aktiboa eta sexu bien presentzia orekatua eta askotariko irudia bermatu behar dute, edertasun kanonetatik eta sexu bakoitzak bizitzeko arloetan betetzen dituen eginkizunei buruzko estereotipo sexistetatik aparte, eta*

bereziki zaindu behar dituzte ume zein gazteentzako edukiak. Bestalde, emakumeek sustatutako edo emakumeek zuzendutako jarduera politiko, sozial eta kulturalen zabalkundea bermatu behar dute, gizonetikiko berdintasunean, eta orobat emakumeak ahalduzko lagungarri diren jarduerak ere”.

Bestalde, 3/2007 Lege organikoak, 39. artikuluan, adierazten du titularitasun pribatuko gizarte-komunikabide guztiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errespetatu behar dutela nahitaez, edozein diskriminazio modu saihestuz, eta Administrazio Publikoek autoerregulazio-erabakiak sustatu behar dituztela emakumeen eta gizonen ezberdintasunaren arloko legeria betetzen laguntzeko, komunikabide horietan garatzen diren salmenta eta publizitate-jarduerak barne.

Ebazpena

Lehenengoa.- D/45/2008 zk. ikerketa-espeditentean egindako jardunen indarrez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defendatzailearen ustez El Diario Vascok sexu-arrazoiengatiko diskriminazioa egiten du harremanetarako iragarkietan eguneroko prentsako edizioetan, emakumeak sexu-objektu soil gisa aurkezten dituelako eta emakumearen irudia gure ordenamendu juridikoa urratzen duten mendean jartzeko eta azpiratzeko portaera estereotipatuak lotuta erabiltzen duelako.

Bigarrena.- Egoera horren aurrean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak honako gomendioak eman dizkio El Diario Vascore:

1. Besteen prostituzioaren bitartekariak egindako iragarkien argitaratzea bertan behera uztea, eta edozein kasutan, emakumeak sexu-objektu soil gisa aurkezten dituztenak, emakumeen funtzio estereotipatuak indartzen dituztenak, baita emakumeen irudi laido garri edo iraingarriak ere, ez argitaratzea.

2. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan autoerregulatzeko



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

kode bat lantzea, jendearen pertzepzioan estereotipo sexistak aldatzen eta gizonen eta emakumeen irudi objektibo bat aurkezten laguntzeko, arreta berezia eskainiz publizitateari eta, horren barruan, sexu-harremanetarako publizitatearen trataerari.